## Joan Mari Torrealdai
### 2. BEKA DEIALDIA



Joan Mari Torrealdai Beka kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzeko sortu da, bereziki Joan Mari Torrealdaik jorratu izan dituen esparru nagusietan. Bigarren edizio honetan, beka deialdiaren gaia "Euskal kultura azterketa gaur" izango da. Proiektuak urriaren 21era bitarte aurkeztu ahalko dira, eta 14.000 € eskuratuko ditu irabazleak.

**Bekaren oinarriak eskuratzeko:** www.jakin.eus

**Antolatzaileak:** Jakin Fundazioa eta Usurbilgo Udala.

# IKASTAROAK

## ALKARTASUNA KOOPERATIBAREN IKASTAROAK

**Antolatzaileak:** Alkartasuna Usurbilgo baserritarren kooperatiba eta Sagardoaren Unibertsitatea.

**Izen-ematea:** Doan. Alkatasunako telefonoan 943 361114 eta alkartasuna.eus web orrian.

Urriak 1, asteartea

**Etxeko sagardoa egiteko ikastaroa eta egurrezko ontzien erabilera sagardogintzan. Etxeko sagardoen dastaketa gidatua**

18:00 Potxoenean.

Irakasleak: Jakoba Errekondo eta Egoitz Zapiain.

Urriak 17, osteguna

**Sagar Dultzearen elaborazioa**

18:30 Aitzaga Elkartean.

Irakasleak: Mila Pagola eta Marije Goldarazena.

Urriak 24, osteguna

**Sagardo Dastakea Kluba. Izotz sagardoa egiteko ikastaroa eta dastaketa gidatua. Zer da izotz sagardoa? Nola egiten da?**

18:30 Aginagako Eliza Zaharra.

Irakaslea: Egoitz Zapirain.

## KERAMIKA TAILERRA




**Antolatzailea:** Bustinzulo Keramika taldea.

**Noiz:** Urriak 7-Maiatzak 26: asteartetan, 17:30-19:30

**Ekarpena-prezioa:** 225 euro

**Izen-ematea:** buztinzulo@gmail.com

## EUSKARA IKASTAROAK

**Etorri berrientzako hastapen-saioak**

Asteartetan 18:15-19:45, Potxoenean.

**Izen-ematea:** euskara@usurbil.eus edo 943 371 999

**Hasiera:** urriak 8

**Jubilatuentzako oinarrizko euskara ikastaroa**

Ostegunetan 18:00-19:30, Artzabalen.

**Izen-ematea:** Potxoenean edo 943 371 999

**Hasiera:** urriak 10.

# ERAKUSKETAK

## IRAILAK 20-URRIAK 6
### PILAR HERRERO SOKOBEHERERREN ERAKUSKETA: "MUSU TRUK"

Sutegiko erakustaretoan.

Ostiraletan 18:00-20:00

Larunbatetan: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

Igandetan :11:00-14:00

Donostiarra sortzez. Gaur egun, Zarautzen bizi da.

Zarauzko Artezalek-en Usurbilgo Jasone Irigoyen du irakasle.

Batzuetan interneten ikusten ditudan argazkietan inspiratzen da, beste batzuetan, bidaietan egiten dituen argazkietan, hala nola Vietnam, Kanboia, Norvegia, baina baita Zarautz, Elgoibar, Getarian eta beste Euskal Herriko toki batzuetan ere.

Paisaiak, abstraktuak eta bestelakoak margotzen dituen arren, erretratuak dira bere gustukoenak.



## URRIAK 11-27
### IBAI MARITXALARREN PINTURA ERAKUSKETA

Sutegiko erakustaretoan.

Ostegun eta ostiraletan 18:00-20:00

Larunbatetan: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

Igandetan :11:00-14:00

Ibai Maritxalar Bilbo eta Londoneko Arte Ederretan ikasten ibili izan da. Bere bizia Euskal Herria eta Mexikoren artean partekatuz, olioarekin margotzen du, keinua, adierazpena eta koloreagatik indartsuak eta harrigarriak diren jendeak eta formak sortzen ditu.




## URRIAK 7-10
### SAGARDOTAKO SAGARREN ERAKUSKETA

**Antolatzaileak:** Alkartasuna Usubilgo Baserritarren kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea eta Usurbilgo Udala.

**Noiz:** urrian

**Non:** Sutegiko erakustaretoan eta Alkartasuna Kooperatiban.

Sagardotarako erabiltzen ditugun 115 barietateren artean aukeraketa ikusgai.

Eraman Kooperatibara etxean dituzun sagar klaseak, Usurbilgo bilduma osatzeko.

# GAZTELEKUA




Gaztelekuan 12 urtetik aurrerako gazteek parte hartzen dute.

**Informazio gehiagorako**
Gaztelekura etorri aipatutako ordutegian edo gaztelekuausurbil@gmail.com helbidera idatzi.

Gaztelekua, San Inazio kalea 3. Telefonoa: 688 713838

**Urriaren 2an, 18:00ean**, gurasoentzako aurkezpen bilera izango da Gaztelekuan bertan.



*Zuen deialdiak zabaltzeko, bidali hilaren 15a baino lehen kultura.usurbil.eus helbidera.*

## BISITA GIDATUAK

- **Urriak 5** Salbatore Elizaren ondarea bisita gidatua organo erakustaldiarekin.
  12:00 Salbatore Eliza sarreran (Dema plaza) 5 € (18 urtetik behera doan)
- **Urriak 5** 1936ko Gerra Garaiko herriguneko ibilaldia.
  18:00. Usurbil 1936 elkartearen eskutik.
- **Urriak 12** Museo Irekia bisita gidatua eta Zumeta Estudioa.
  11:00 Sutegin. 3 € (18 urtetik behera doan)
- **Urriak 24** "Zero Zabor" bisita gidatua.
  10:00 Udaletxean
- **Urriak 25** "Zaintzaren Usurbil" bisita gidatua.
  10:00 Udaletxean
- **Urriak 26** Salbatore Elizaren ondarea bisita gidatua organo erakustaldiarekin.
  12:00 Salbatore Eliza sarreran (Dema plaza)
  5 € (18 urtetik behera doan)
- **Urriak 27** Museo Irekia bisita gidatua gazteleraz.
  12:00 Sutegin. 3 € (18 urtetik behera doan)




**Sarrerak** https://650usurbilbizi.eus/agenda/

Telefonoa: 747 485140 turismoa@650usurbilbizi.eus

## KZ-GUNEKO IKASTAROAK

**AURREZ AURREKOAK**

MEKANOGRAFIA. **Ikasi hutsetik** (10 ordu) Urriak 25-31 16:00-18:00

OFIMATIKA TRESNAK. **LibreOffice** (20 ordu) Urriak 11-24 16:00-18:00

GOOGLE. **Kudeatu zaitez Google aplikazioekin** (16 ordu) Urriak 1-10 18:00-20:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabala.

Urrian Kzgunea: arratsaldez 16:00-20:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

## UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00

Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30

Itxita ○

Goizez ●

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | ● | ○ |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | ○ | ○ |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | ● | ○ |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | ● | ○ |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

Sutegi Udal Liburutegia · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · http://liburutegiak.blog.euskadi.net//usurbil/

Usurbilgo Udala
Kultura, Euskara eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

**usurbilkultura.eus**
*Herritarron tresna Usurbilgo kultura zabaltzeko*

## USURBIL KULTURA 2024ko **urria**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Asteazkena 16:30 Pelaioenean | "CUIDADO RESBALA" DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA | 2 |
| Ostirala 18:30 Aginagan | SAN PRAIXKU EGUNA | 4 |
| Larunbata 11:00 Pelaioenean | EMAKUMEON TOPAKETA | 5 |
| Larunbata 23:30 Frontoian | SAN PRAIXKUAK: ITZAL ERROMERIA | 5 |
| Astelehena 19:00 Potxoenean | "ZENBAT LO" LIBURUAREN AURKEZPENA | 7 |
| Ostirala 23:30 Eliza Zaharrean | SAN PRAIXKUAK: BIDE BATEZ ERROMERIA | 11 |
| Larunbata 00:00 Aginagako frontoian | SAN PRAIXKUAK: BELE ETA HERENEGUN | 12 |
| Astelehena 18:00 Pelaioenean | LIBURU AURKEZPENA: "AINGERUAK ETA NESKAMEAK" | 14 |
| Asteartea 19:00 Sutegi erakustaretoan | LURRAZPIKO MINTZIA: 1935KO LUBAKIEN ARKEOLOGIA ANDATZA MENDIAN | 15 |
| Asteazkena 16:30 Pelaioenean | "EL TRANSITO" DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA | 16 |
| Ostirala 19:00 Sutegin | ZINZINDURRUNKARRATZ FILMA | 18 |
| Larunbata 20:30 Ibai-Ondo elkartean | BERTSO AFARIA SANTUENEAN | 19 |
| Igandea 8:00-14:00 | BURUNTZALDEKO IBILBIDEEN EGUNA | 20 |
| Igandea 10:00 Aginagako plazatik | BERTSO-IBILALDIA USURBIL INGURUKO SAGASTIETAN BARRENA | 20 |
| Asteartea 17:30 Eliza Zaharrean | SORGINA TXIRULINA IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA | 22 |
| Asteazkena 19:00 Sutegi Liburutegian | LITERATURA SOLASALDIA: "A ESCONDIDAS" | 23 |
| Ostirala 19: 00 Sutegin | EUKALYPTUS ANTZERKIA | 25 |
| Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazan | KANTU JIRA | 26 |
| Larunbata Egun osoko jaia, Zumarten eta Sutegin | BOOKTEGI JAIALDIA | 26 |
| Asteazkena 18:00 Sutegi Udal Liburutegian | KONTA DITZAGUN IPUINAK IXABEL AGIRRESAROBE | 30 |

### ERAKUSKETAK

| | | |
|---|---|---|
| Sutegiko erakustaretoan | PILAR HERRERO SOKOBEHERE:" MUSU TRUK" | Irailak **20/** Urriak **6** |
| Sutegiko erakustaretoan | IBAI MARITXALARREN PINTURA ERAKUSKETA | Urriak **11-27** |
| Sutegiko erakustaretoan | NAFARTARRAK: GIZA HABITAT EZKUTATUA ERAKUSKETA | Urriak **28/** Azaroak **2** |

### IKASTAROAK

| | | |
|---|---|---|
| Asteartea 18:00 Potxoenean | ETXEKO SAGARDOA EGITEKO IKASTAROA ETA EGURREZKO ONTZIEN ERABILERA SAGARDOGINTZAN | 1 |
| Osteguna 18:30 Aitzaga Elkartean | SAGAR DULTZEAREN ELABORAZIOA | 17 |
| Osteguna 18:30 Aginagako Eliza Zaharra | SAGARDO DASTAKEA KLUBA. IZOTZ SAGARDOA EGITEKO IKASTAROA ETA DASTAKETA GIDATUA. ZER DA IZOTZ SAGARDOA? NOLA EGITEN DA? | 24 |
| Astelehenetan 17:30-19:30 | BUZTINAREKIN ESPERIMENTATUZ | 7 |

2024ko URRIA

# USURBIL Kultura

## booktegi jaialdia 2024
URRIAK 26



URRIAK 15
**LURRAZPIKO MINTZOA:**
1936ko lubakien arkeologia Andatza mendian

1936 Usurbil

## SAN PRAIXKU JAIAK AGINAGAN
## Urriak 4-6 eta 11-12

**Antolatzailea:** Aginagako Jai Batzordea.

### URRIAK 4, OSTIRALA / San Praixku eguna

**11:00** Meza Nagusia.
**12:00** Jubilatuen hamaiketakoa Aginaga Sagardotegian: Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariekin lagunduta.
**18:30** Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin; txanpaina gure kontu!
**19:00** Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilarien saioa plazan.
**19:30** Sardina eta sagardo banaketa.
**Bitartean**, XL. Toka txapelketa herrikoia eta buruhandi bizkor-bizkorrak.

### URRIAK 5, LARUNBATA / Oilasko Biltzaileen eguna

**05:30** Oilasko biltzaileen gosaria.
**06:00** Oilasko biltzaileen irteera Atarialde Elkartetik.
**11:30** Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.
**18:00** Txosna irekiera.
**18:30** Kaleak alaituz FANFARRIKANT.
**Bitartean**, herri poteoa.
**21:00** Herri Afari bikaina. (Sarrerak Arraten, 30 € helduak eta haurrak 12 € / *sarrerarik gabe momentuan 40 €)
**23:00** Txosna irekiera.
**23:30** Erromeria frontoian. ITZAL ERROMERIA.
**03:00** Eliza Zaharrean. DJ JOTATXO.




### URRIAK 6, IGANDEA

**16:00** XLI. Mus Txapelketa Irekia. Eliza Zaharrean izango da eta izen-ematea 15:30 ireki eta 16:00 itxiko da.
**18:30** Bingo Musikatua zuzenean gaurko eta lehengo abestiak entzunez! Nork eramango ote du. saria? Eskola Txiki aurrean.
**19:00** Haragi egosi, txorizo eta sagardo banaketa.

### URRIAK 11 , OSTIRALA / Umeen eta gazteen eguna

**10:00** Umeen jolasen hasiera.
**13:00** Umeen bazkari goxo-goxoa frontoi txikian.
**16:00** Puzgarriak frontoian.
**17:30** Txokolate goxo-goxoa.
**Ondoren**, Eguraldiak laguntzen badu, apar festa!!! eta Buruhandi gaizto-gaiztoak. Bustita eta bero-bero haurrak etxera bidaltzeko. Argi ibili!
**19:00** Musikaz girotuta poteoa.
**21:00** Gazte afaria Atarialde Elkartean. *Izena emateko idatzi urriak 4 aurretik instagramera.
**23:00** Txosna irekiera.
**23:30** Kontzertua Eliza Zaharrean BIDE BATEZ ERROMERIA.
**03:00** Itxi arte, DJ Davila.

### URRIAK 12, LARUNBATA / Errioaren eta kintoen eguna

**09:30** "GOZATU ERRIOAZ" Uretako ekintzak: piragua, alan paseoak eta arraunean ibiltzeko aukera izango da, musikaz girotuta eta hamaiketakoarekin.
**11:45** Aginagako Trainerila Txapelketa: Gizonezkoen XI. ikurrina eta Emakumezkoen V. Ikurrina.
**19:30** ELEKTROPOTTOTTE Elektrotxaranga!
**00:00** Kontzertuak frontoian: BELE eta HERENEGUN.
**03:30** Eliza Zaharrean DJ ZKNBrothers.
**08:00** Errefus bilketa.

## ZAINTZA EKIMENEN ZIKLOA

HERRI ZAINTZAILEA
USURBIL

**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala.

### URRIAK 2, ASTEAZKENA

**"Cuidado Resbala" dokumentalaren emanaldia eta solasaldia**

16:30 Pelaioenean.

**Dinamizatzailea:** Emagin Elkartea. **Sarrera:** Doan. **Hizkuntza:** gaztelania.

Gizartean, jarduera ordainduak lehenesten dira, prestigioa ematen dutenak eta diru-balioan neurtzen direnak. Hala ere, zeregin ikusezin asko daude, guztion bizitzari eusteko ezinbestekoak direnak. Dokumental honek gizartearen eta, bereziki, mugimendu feministen kezketako bat jorratzen du: zaintza lan ikusezinak.

### URRIAK 16, ASTEAZKENA

**"En tránsito" dokumentalaren emanaldia eta solasaldia**

16:30 Pelaioenean.

**Dinamizatzailea:** Bidez Bide Elkartea. **Sarrera:** Doan. **Hizkuntza:** gaztelania.

Dokumental honetan, Nikaraguan bizi diren adin txikikoen eta nerabeen errealitatea aztertzen du (Ocotal eta Managua), baita jatorrizko herrialdeko zaintzaileena eta Gipuzkoan bizi diren haien amena ere. Era berean, nazioz gaindiko harreman horren ondorioei buruz hitz egiten du, eta zaintzen kate globalen errealitatea islatu egiten du.

## 5 | Larunbata | 11:00-14:00 | Pelaioenean

### Emakume Topaketa




**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala.
**Izen-ematea:** emakumeonetxea@usurbil.eus / 943 377112
11:00 -13:00 Talde dinamika.
13:00 – 14:00 Bea Egizabal umoregilea.
14:00 Luntxa.

Herriko emakumeok elkar ezagutzeko, sareak josteko eta etxearen erreferentzialtasuna handitzeko antolatu dugu Emakumeon Topaketa.

## 7 | Astelehena | 19:00 | Potxoenean




### "Zenbat Lo"
### Nekane Txapartegiren liburu aurkezpena

**Antolatzailea:** Usurbilgo Sare.

"Zenbat lo" liburuaren aurkezpena. Haur batek kartzelarekin eta preso dagoen amarekin daukan harremanari buruzko liburua. Bertan izango dira: Iraitz Lizarraga (idazlea), Izaro Lizarraga (ilustratzailea) eta Nekane Txapartegi (ekintzaile, protagonista).

## 14 | Astelehena | 18:00 | Pelaioenean



### "Aingeruak eta neskameak"
### liburuaren aurkezpena

**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala. **Sarrera:** Doan.

June Fernandezen "Aingeruak eta neskameak (haurdunaldi subrogatuei buruzko analisi feministak)" liburuaren aurkezpena. Egilea bertan izango da.

## 15 | Asteartea | 19:00 | Sutegiko erakustaretoan



### Hitzaldia: Lurrazpiko mintzoa: 1936ko lubakien arkeologia Andatza mendian

**Antolatzailea:** Usurbil 1936 Oroimen Historikoaren Elkartea.

Andatzako indusketetan aurkitutako materialaren azalpenak emango dizkigu Josu Santamarina arkeologoak.

Josu Nafarroako Unibertsitate Publikoan Historia Garaikideko irakaslea eta Nafarroako Oroimen Historikoaren Fondo Dokumentalean ikerlaria da. Euskal Herriko Unibertsitatean Historian eta Arkeologian doktorea. Aro Garaikideko Arkeologian, Memoria Historikoan eta Ondarearen eta Giza Eskubideen didaktikan espezializatu da eta Txileko Memoria eta Giza Eskubideen Museoan egonaldi bat egin zuen. Gasteizko Memoria Gara elkarteko kidea da.

## 18 | Ostirala | 19:00 | Sutegiko auditoriumean



### Zinzindurrunkarratz.
### Oskar Alegriak zuzendutako filma

**Antolatzailea:** Noaua! Kultur elkartea.
**Nori zuzendua:** helduei.
**Sarrerak:** aldez aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua!ko egoitzan.

Ahaztutako bide bat. Etxeko kamera zaharra. Isiltasuna.

Zinemagile batek bere herriko artzainek mendira egiten zuten transhumantziaren bidea berreskuratzea erabakitzen du, baina, ez du aurkitzen ibilbide zehatza adierazteko lekuko bizirik. Bere ideia bere familiaren super-8 kamera zaharrarekin filmatzea da, baina 41 urte erabili gabe igaro ondoren, ez duela soinurik jasotzen ohartzen da. Ahaztutako bidea eta kamera isila bihurtuko dira, Paolo izeneko astoarekin batera, oroitzapenez, galderaz eta isiltasunez betetako bidaia baten protagonistak.

Oskar Alegria zuzendaria bertan izango da.

## 19 | Larunbata | 20:30 | Ibai-Ondo Elkartean




### Bertso Afaria Santuenean: Maialen Lujanbio, Uxue Fernandez eta Unai Muñoa

**Antolatzailea:** Santuenea Elkartea · **Gai-jartzailea:** Onintza Gartzia.
**Menua:** 30€ (Txistorra, bakailaoa saltsan, saiheskia, gazta, irasagarra eta intxaurrak, kafea eta kopa) · **Sarrerak:** Santueneako Zahar Etxeko tabernan: irailaren 30etik aurrera.

## 20 | Igandea | 08:00-14:00



### Buruntzaldeko ibilbideen XVI. Eguna

**Antolatzaileak:** Buruntzaldeko Udaletako kirol zerbitzuak.

Buruntzaldeko ibilbideen Egunean Buruntzaldea eskualdea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu. Ilbideen egunean Usurbilgo abiapuntuak Mapilen eta Santuenean egongo dira. Itzulerarako autobus zerbitzua egongo da, lau udalerrietatatik itzuliak egiten.

**Informazio gehiago:** www.kirolak.buruntzaldea.eus

## 20 | Igandea | 10:00 | Aginagako plazatik



### Bertso-Ibilaldia Usurbil inguruko sagastietan barrena

**Antolatzaileak:** Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea eta Usurbilgo Udala.
**Izen-ematea:** alkartasuna@usurbil.com edo 943 361114. Doan.

Sagardoaren paisaia kulturala ezagutzeko parada Maialen Lujanbio eta Andoni Egañaren bertsoak aditu eta Jakoba Errekondoren argibideak jasota.

## 22 | Asteartea | 17:30 | Eliza Zaharrean



### Musikaren bidaia ipuin kontaketa

**Antolatzailea:** Antxomolantxa.
**Sarrera:** doan · **Iraupena:** 50 min. · **Norentzat:** 4-8 urte tarteko haurrentzat.

Zeharkako txirulaz baliatuz, Sorgina Txirulinak istorioa kontatu eta musika estiloak aurkeztuko dizkigu, reggae, jazz, flamenko etab. Nolakoak diren ezagutzeko aukera aparta! Bidaiatzeko prest?

## 23 | Asteazkena | 19:00 | Sutegi Udal liburutegian



### GAZTELERAZKO LITERATURA SOLASALADIA:
### Iban Zalduren "A escondidas" ipuin liburua

**Antolatzailea:** Sutegi liburutegia · **Iraupena:** 1,15 ordu inguru.

Iban Zaldua idazlea gure artean izango da. Bidelagun, beste behin, Ana Merino. Liburuak eskuragarri daude liburutegian.

## 25 | Ostirala | 19:00 | Sutegiko auditoriumean



### Eukalyptus antzerkia

**Antolatzaileak:** Usurbilgo Udala eta Udalbiltza. Guretik Sortuak egitasmoko ekimena.
**Sarrerak:** 3 euro. Usurbilkultura.eus webguneraren bidez.
**Zuzendaritza eta dramaturgia:** Matxalen de Pedro eta Jon Ander Urresti.
**Interpreteak:** Jon Ander Urresti eta Beñat Urrutia.

Hau ez da baso bat. Hamen lurra karratua da. Hamen ilarak osatzen doguz. Hamen gatxa da gauzak sustraitik moztea. Hamen, eta hor, eta han. Hau monolaborantza da. Gure bizi-eredua, paisaian islatua. Eukalyptus esatea etekin esatea da. Eukalyptus esatea errekin esatea da. Eukalyptus esatea berrekin esatea da. Eukalyptus esatea gutaz aritzea da. Eroan nazazu basora, eta esango deutsut norena dan, eta zer haziko dan gu falta garenean. Eta zu, zerk sutzen zaitu?

## 26 | Larunbata | 12:00-14:00 | Mikel Laboa plazatik irteera



### Kantu-jira kalez kale

**Antolatzailea:** Usurbilgo Kantu Taldea · **Nori zuzendua:** Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.

## URRIAK 26, LARUNBATA
## BOOKTEGI JAIALDIA

**Antolatzailea:** Booktegi.
**Laguntzaileak:** Noaua!, Antza eta Usurbilgo Udala.

Booktegik ehunka liburu, audio eta bideo eskaintzen ditu, guztiak euskaraz, eta guztiak dohainik. Egun osoko jaialdia antolatu du Usurbilen, urriaren 26an. Guztira, 40 sortzaile baino gehiagok parte hartuko dute jaialdian, eta musikaz, antzerkiaz eta literaturaz gozatzeko aukera ederra izango da guztiontzat.




Goizean, **Zumarte Musika Eskolan:**
**Anfitrioia:** Itxaro Borda
**10:30** Elkarri irakurriz (mailegua)* Maddi Ane Txoperena, Goizalde Landabaso, Ainhoa Urien.
**11:30** Poesia itzulera.
**12:30** Geuretik Sortuak.
**13:30** Elkarri irakurriz (oparia)* Maialen Akizu, Oier Guillan, Nerea Loiola. Moderatzailea: Maitane Perez.

Arratsaldean **Sutegin:**
**16:30** Poesia dramatizatua. Udarregi ikastola.
**17:30** Hamalau. Mikel Martinez.
**18:00** Hitzak aurrekari. Ainhoa Urien, Oihana Iguaran, Iruri Antzerreka. **Sarrerak:** 5€ usurbilkultura.eus webgunean.
**19:00** Kontzertua. Habiak taldea. **Sarrerak:** 5€ usurbilkultura.eus webgunean.
**20:00** Dantzaldia Frontoian: Esther Sound Sister DJ.

## JARDUNALDIAK
## "Gure lurrean gu nagusi" (Errobi)

**Antolatzailea:** Nafartarrak Taldea.
**Laguntzaileak:** Usurbilgo Udala eta Nabarralde Fundazioa.
**Sarrera:** doan.



### ERAKUSKETA
### Giza habitat ezkutatua

**Noiz:** Urriak 28-Azaroak 2.
**Ordutegia:** astelehenetik-larunbatera 18:00-20:00

Klima, paisaia eta izaki bizidunekin batera, giza habitataren parte banandu ezinak dira: hizkuntza, kultura eta erakundeak. Bizi nahi duen herriak bere historia kontatu behar du.

"Giza habitat ezkutatua" Nabarralderen eskutik sortutako erakusketa da. 14 hormairudi edo paneletan jasota dago Euskal Herriko historia, «bere osotasunean eta testuinguruan jarrita, baina modu erraz eta sintetikoan». Izan ere, horrelako zerbaiten falta sumatzen genuen.

### AZAROAK 2, LARUNBATA
### Jardunaldia
### "Gure Lurrean gu nagusi"

**10:00-13:30** Sutegiko auditoriumean
Hitzaldiak:
- Konkistatik asimilaziora
- Zer nolako prozesu, pauso eta bestelako estrategia eman diren gure herriaren aurka.

Horrenbeste mendetako guduen ondoren, Euskaldunak gero eta gorputz gutxiago dugu. Esatebaterako, Guda Karlistak galdu ondoren, euskarak 40 km atzera egin zuen.

Pasarte hauetan sakontzeko hitzaldi sorta laburra izango da.

**Hizlariak:** Iñaki Idigoras, Koldo Martinez Garate, Maier Anabitarte, Idoia Arrieta, Beñi Agirre, Joxe Manuel Odriozola eta Ane Ablanedo.

## 30 | Asteazkena | 18:00 | Sutegi Udal liburutegian




### "Konta ditzagun ipuinak" kontaketa saioa Ixabel Agirresaroberen eskutik

**Antolatzailea:** Sutegi liburutegia · **Iraupena:** ordubete inguru.

Saioa 5 urtetik gorako haurrei eta euren guraso edo/eta zaintzaileei zuzendua dago.